

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA

#### **Behin betiko onespena ematea Gasteizko HAPOko Larrein 13. sektorean Errekaleor ibaiaren gainerik igarobide bat gauzatzeko proiektuari**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 28an egindako bilkuran, Gasteizko HAPOko Larrein 13. sektorean Errekaleor ibaiaren gainerik igarobide bat gauzatzeko proiektua dela eta:

1. O. F. M. jaunak Gasteizko Udaleko Irabazi Ganar Gasteiz udal taldearen izenean egindako alegazioa ezestea, proiektuan ingurumen-txosten bat sartzeari dagokionez.

2. Aurkeztutako alegazioa partez onestea, ingurumena eta paisaia egokitzeko eranskinari dagokionez, ZEC eta ZEPA ES210014 babes-zona periferikoaren figura onartuz, eta prebentzio-neurriak nahiz neurri zuzentzaileak sartzea bertan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Aniztasun Zerbitzuaren txostenean adierazten denarekin bat etorriz.

3. Behin betiko onespena ematea Gasteizko HAPOko Larrein 13. sektorean Errekaleor ibaiaren gainerik igarobide bat gauzatzeko proiektuari, zein gauzatzeko zenbatekoa 147.421,91 eurokoa baita, BEZa barne.

4. Erabaki honen berri ematea alegazio-egileari eta sektoreko hitzarmen-batzarrari, eta iragarkia argitaratzea ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako bitan, eta orobat jakinaraztea interesdunei administrazio-bidea agortzen duela honek, eta beraren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dutela Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan — bi hilabeteko epean, jakinarazten zaienetik —, edo bidezko den beste edozein.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 31n

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**